



*Bizkaiko Simplyko enpresa-batzorde guztiek deituta (LAB, ELA, UGT, CCOO eta ESK), elkarretaratze bat egin dugu gaur Bilboko Gordoniz kaleko Simply saltokietan, prekaritatea areagotu delako lan-baldintzetan. Barakaldon egindako mobilizaziotik bost egun igaro eta gero egin dugu protesta.*

Azken urteotan murriztu egin dute langile-taldea. Uda honetan larritu egin da egoera garbiketa-zerbitzua barruko langileekin egiteko erabakiaren ondoren. Honek, kontratako 31 langile kaleratzea ekarri zuen.

Langile hauen kaleratzeak eta urte betetik hona kaleratze gehiago egitearen mehatxuz enpresa egiten ari den presioak, bere ustezko egoera ekonomiko txarra dela eta, ohiko langile-taldetik 50 pertsona murriztea ekarri du.

Langile-murrizketa honen ondorioak honezkero nabaritzen ari dira, eta lan-kargek gora egin dute. Honezkero ondorio negatiboak izaten ari dira langileen osasun eta bizitza pertsonalaren uztarketan.

Bizkaiko Simplyko enpresa batzordeek mobilizazioei ekin diete, lan taldean gertatzen ari diren murrizketak eta lan baldintzak okertu direla salatzen. Enpresa batzordeetan gauden sindikatuok adierazi dugu Simplyk horrela jarraitzen badu, hau da, errentagarritasuna handitzen langileen lan baldintzen kalterako, aurrean izango gaituztela.